

DEUSTU UDALA ZAN

1924n. urtera arte bere mortasuna eukan Deustu'k, Bizkai'ko Jaunerriaren barruan, baiña Aro'ko Diego Lopez'ek sortu eban uriak, Abando beragandu-ondoren, ba-eukan guraria Deustu ta Begoña erriak beragatatzeko be.


Orrelan, Primo de Rivera bakar-agintari gogorraren aldian, 1924'an izenpetua izan zan dagonillaren 18'ko agirian kendu jaken erritxu onei euren nortasuana eta uri aundiagaz bat egin bear izan eben.

Aldi aretan Deustu'k, gitxi gorabera, 9.000 biztanle eukazan eta lurraren emoitzetatik ateraten eban bizia. Langintza be oso aurreratua zan.

Zori txarrez, Deustu'ko udalaren agiritegiak galdu egin ziran, ez guztiak, 1970'era artekoak biño, Urte onetatik aurrekoak ba-dagoz, baiña Karlos'tarren azkenengo gudea izan zan agiri areik ondatu ebazana.

Ba-dakigu, edozelan be, 1500n.urte inguruan 36 sendi-inguru zirala Gernika'ko batzarretara autarkia bialtzen ebenak. 1787'an Deustu'k 200 etxe eukazan, Goierrri ta Olabeaga'n. Goierrri'tik gitxiago ziran itxaslanetan ziarduenak, onein lana legorreko esku-lana zan. Olabeaga'koak jente geiago ziran eta geienak euskeraz egiten eben berba eta abere ta lurraren artean banatzen eben euren lana. Entzute aundikoak ziran ango porruak, berakatzak, tomateak, artoa, garia eta, batez be txakolin gorria. Orregaitik esaten eutsen, beste aldekoak, euskerarik ez ekienak: "Bajo las parras del Pueste Nuevo txakolin gorri suelen beber, buenas mozkorras suelen coger".

Deustu'ko askok euskera ekielako, eurentzat Bizkai'ko erriak begiko izaten ziran eta erriak be begirune bardiñagaz erantzuten eutsen. Olan Orozko'tik Deustu'ra etorri zan Letona'tar Bartolome agintari trebe ta zentzunduna ta euskeraz ondo ekiana. Onek Udaletxerako auteskundeetan alkate urten eban, eta ez bein bakarrik. Orain Abadeño'n bizi da 95 urteko abade anaia-gaz eta berak 90 urte ditu. Tiburtzi nire arrebeak diñoanez, Orozko-Aranguren eta Olarteko parroketan lau anai Letona bizi ziran. Laurak gizon jatorrak, burutsuak, Euskalerrria ta Bizkaia asko maite ebenak. Sabino Arana'ren lagun aundiak ziran. Bi geratu ziran an euren errian, eta beste bi Bartolome ta Xabier Bilbao'ratu egin ziran; Bartolome Deustu'ra eta Xabier Bilbao'ko diru-etxe batera. Euren alabakaz ezkondu ziran Kortadi ta Esparza eta Gipuzkoa'ko Garin, Letona'tar Xabier'en alabeagaz. Onein illoba Begoñatxu Urretxu'n bizi da eta gabonetan bere senide-agurra bialtzen daust. Erantzun be egiten daust. Ez dot jarraituko senitarte onegan, Deustu'tik aldendu ez nadin.



DEUSTU'KO PELOTA-LEKUA 1887'nn EGIÑA.

Goazen Deustu'n birritan alkate izan zan L. tona'tar Bartolome'gana. Onek bere zartzaroan Henao kaleko 56n. zenbakian, aukeratu eban bizilekua. Ementxe eldu zan zorionez beterik 100 urtera eta Jainkoaren eskuetan il zan Begoña'ko Ama'ri Agur Erregiña abesten. Ementxe bizi dira oraindiño bere illoba bi gitxienez.

Baiña goazen barriro Deustu'ra, idaz-lan onetarako artu dodan gaia amaitzeko.

Deustu ingurua gazte ta argitsua da eta bere giro alaitsu onek ikasle gazte asko erakarten dau beragana. Antxe dago Jesus'en Lagundiak eskatuta, Kubas'tar Franzisko etxegille jaunak egin eban Ikastetxe Nagusia. Ikastetxe onetako geletatik gizon jakintsu ta garrantzi aundikoak urten dabe.

Deustu'ko gaste-taldeak lan egiten dau Luzarro merkatari-tokian. Antxe erutzen dabez itzaldiak eta abestaldiak eta, oraingo lanerako garra danez, drogearen aurkako aletin-ekintzak. Talde bat sortu dabe, "Deustua euskera dariola". Joango al dira batera berbak eta giteak!

LETONA'K